

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak. Gure enpresan baliabide nagusi hauek beharko ditugu enpresa moduan funtzionatu ahal izateko.

Baliabide fisikoei dagokionez, batik bat gure produktuak ekoizteko instalazioak eta gure denda fisikoa izango dira. Gure proiektua aurrera irten dezan denda fisikoa izatea nahi genuen, horretarako lokal bat alokatu eta bertan gure denda eraikitzen joan gara. Bertaraino bezeroak joateko erosotasun guztiz.

Horrez gain, sistema informatikoak erosketak online egin ahal izateko ordenagailu baten bidez. Baita diseinua egiteko materiala eta lan egiteko toki erosoak. Bertan ofizina bat edukiko dugu.

Baliabide intelektualak ere behar beharrezkoak izango ditu, gutako bakoitza gauza batean hobeto arduratuko da, beraz, ezinbestekoa izango dugu denon parte hartzea lana ondo atera dezan. Lanak banatu eta bakoitza hobeen moldatzen den hortaz arduratuko da: diseinuak, informatikako ezagutzak, sare sozialak, denda fisikoan bezeroei lagundu...

Azkenik, finantza-baliabideak izango ditugu, aurretik aurreztua dugun dirua erabiliko dugu, azken finean, hasiera batean ez genuen irabazirik, beraz, dirua jarri behar genuen inbertsio gisa aurrerago dirua irabazteko. Enpresa aurrera doan heinean, dirua biltzen joango gara aurretik ipinitakoa berreskuratzeko.

Hiru baliabideak oso garrantzitsuak izango dira bezeroekin harremana mantentzeko, diru sarrerak lortzeko eta enpresak aurrera jarraitzeko. Taldekide bakoitzaren zatia oso garrantzitsua izango da talde moduan funtzionatzeko. Zatiak ondo bereizita egongo dira eta denek izango dute argi zer egin behar duten. Ondoren taldekideen lana bildu egingo da eta lan horiek fusionatu egingo dira.

FINANTZA-BALIABIDEAK
eskudirua, kreditu
linealak, aurrezkiak...

**FUNTSEZKO
BALIABIDEAK**

**BALIABIDE
FISIKOAK**
instalazioak, bulegoak,
makinak, sistema
informatikoak...

**BALIABIDE
INTELEKTUALAK**
marka, patenteak,
egile-eskubideak...

GIZA-BALIABIDEAK
sormena, ezagutzak,
gaitasun komertziala...

